

noaia

Udarregi ikastolaren
eraikin berriari
ongi etorri beroa

Santueneko festak,
iruditan

Baxurde Krosseko
sailkapenak



**Argiaren Lagunak taldea
omenduko dute larunbat honetan**



USURBIL
oraina da geroa

Hiria Antolatzeko
Plan Orokorren
Parte-hartze prozesua



www.usurbilorainadageroa.com

Etorkizuneko Usurbil marraztera goaz **ZATUZ ETA PARTE HARTU**

AGENDA

Egungo Usurbilgo errealitatearen azterkeka
eta etorkizuneko erronkak aurreikustea

BIGARRREN
BILERA

irailak
29

AGINAGA AUZOA, URDAIAGA (Ludoteka)

urriak
4

HERRIGUNEA, KALEZAR, SANTUENEA (Potxoenea)

urriak
1

HERRIGUNEA, KALEZAR, SANTUENEA (Artzabal)

urriak
2

ZUBIETA AUZOA, TXIKIERDI (Kaxkape)

Bilera guztiak 19:00etan izango dira. Urriaren 4koa ordea, 10:00etan izango da.



hamaika
ikusteko, bizitzeko

ZUREA GURE, GUREA ZURE



ikusteko
www.hamaika.tv

LTD nahiz Euskaltel (11 eta 911. kanalak)



OGI BERRI

ARTISAU OKINAK

**ETA ORAIN...
IKUSI FUTBOL
PARTIDUAK
GUREKIN!**



egunero 06:00tik 21:00ra (asteburutan ere)
PUNTAPAX KALEA 16 (ARTZABAL)

Albiste iruditzen

Kinto bazkariak ospatzeko garaia da



1958an jaiotakoek giro ederrean ospatu zuten hitzordua irailaren 13an. Antolatzaileek eskerrak helarazi nahi dizkiote Joxe Manuel Begiristaini, baita kinto bazkariara joandako lagunei.

Laburrean

1946koen kinto bazkaria

Urriaren 5ean igandea, Antxeta jatetxean. Izen emateko epea zabalik izango da ostiral hau bitarte (irailaren 27ra arte). Laurok liburu dendan eman izena edo 943 363 448 telefono zenbakira deitu. "Animatu!", luzatu dute gonbita antolatzaileek.

1972koen kinto bazkaria

Urriaren 11n, Aginaga sagardotegian bilduko dira. Izen emateko epea, irailaren 30era arte zabalik. Prezioa, 40 euro. Ordainketak kontu honetan egin: 0182 6043 21 0201514132 (BBVA). Ordainketak egiterakoan izen abizenak adierazi. Argibide gehiagorako: 687 858 477 (Joxemi).

1973koen kinto bazkaria

Urriaren 25ean, larunbata, Atxega jauregian. "Hamaiketakoa, bazkaria, eta etortzen dena" izango da, antolatzaileen esanetan. Izena emateko azken eguna, urriaren 17a. Apuntatzeko idatzi, otar-goxo@hotmail.com helbidera edo 678 943 674.

noaqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil

943 360 321 /// elkarte@noaqua.com /// www.noaqua.com

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

Publizitatea:

Arantxa Zulaika,

publizitatea@noaqua.com

Diseinu berria:

Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzio@noaqua.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa:

Olatz Rezola,

Arantxa Zulaika.

Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiet, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udalak



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Luis Aranalde

Printze txikia

Orporretan denbora ugari izaten dugu gure afizioez (kirola, irakurketa, paseoa, mendia eta abar) gozatzeko. Nik bakazioez kanpo ere asti ugari edukitzen dut, jubilatua nagoeenez ikastolako lanetik. Aurten irakurketari ordu asko eskaini dizkiot. Eta, besteak beste, duela urte batzuk irakurri nuen obratxo bat, hain zuzen ere "printze txikia" (Le petit Prince) berrirakurri dut. Frantsesez, gainera. Zuek badakizue nire kulturaren parte bat frantsesa dela. Hura gozamen!

Ez dakit nola definitu Antoine de Saint-Exupéryren ipuin hori: poesia, gogoeta, nobela, saioa, parabola, fabula... Dena dela, guztiz aparta! Frantsesez idatzitako libururik salduena izan da: 140 milioi ale; urtero ia milioi bat saltzen dira; berrehun hizkuntzataraz itzuli dute, sistema brailleraz ere bai.

Idazlea Lyonen jaio zela ehun urte bete dira San Inazio egunean. Pilotoa zen eta istripu batez hil zen 1944an. Bere obra 1943an

idatzi zuen New Yorkeko hotel batean. Liburuxkan kontatzen duena zera da: pilotu bat erori zela Saharako basamortuan eta laguntzaren zain zegoela Printze txiki bat agertu zitzaion, "jostailu kaxatxo gisakoa". Bere munduaren berri ematen dio: zein asteroidetatik zetorren, nolakoak ziren inguruan bizi ziren pertsonaiak... Gure planetan beste pertsonaia batzuekin ere topo egiten du: sugerekin, azeriarekin (honek erakutsiko dio maitasunaren eta adiskidetasunaren garrantzia), orratzainarekin, merkatariekin... Printze txikia bere planetara itzultzen denean hegazkilaria triste gelditzen da.

"Abenturak alde batera utzita, liburu honek bakardadea eta adiskidetasunari buruzko hausnarketa pausatua eta poetikoa eskaintzen digu", dio aditu batek. Ipuin honen hainbat pasarte jakinduria unibertsala bihurtu dira. Gozatu egin dut idazlearen testu poetikoarekin eta hainbat gairen tratamenduarekin: - gauza txikien balioa, harrokeriaren kritika, bakardadea, maitasuna...

Urte mordoia igaro dira idatzi zenetik, baina, gaurkotasan osoa gordetzen du. Hona hemen Printze txikiak azeriarekin egiten duen topaketaren bi pasartetxo:

- Egun on, esan zuen azeriak.
- Egun on, erantzun zuen Printze txikiak.
- Nor zara zu? galdetu zion printze txikiak.
- Ni azeri bat naiz, erantzun zuen azeriak.
- Zatoz nirekin jolastera, proposatu zion printze txikiak.
- Nik ezin dezaket zurekin jolas, esan zuen azeriak. Ez naiz hezia.
- Hezi horrek zer esan nahi du? gaineratu zuen printze txikiak.
- Harremanak sortzea, erantzun zion azeriak. Pausatxo baten ondoren: Hezi nazazue! esan zuen azeriak.
- Nik nahi nuke, baina ez dut denbora askorik, erantzun zuen printzeak.
- Hezten diren gauzak bakarrik ezagutzen dira, esan zuen azeriak. Gizonek ez dute deus eza-gutzeko astirik.

Elkar agurtzerakoan,
-Adio; esan zion printze txikiak.
-Adio; esan zuen azeriak. Hona hemen nire sekretua. Oso sinplea da: Bihotzez besterik ez da ongi ikusten. Begientzat, mamizkoa, ikustezina da.
-Begientzat mamizkoa ikustezina da, printze txikiak berresan zuen hartaz oroitzeko.

Hasiera batean umeentzako liburua dela ematen du, baina, testua ez da erraza haur txikiarentzat; nire uste apalean, helduok aukeratu behar ditugu zati egokienak eta maitatuenak eta horiek eskaini haurrei. Haurrak dozena bat urte behar dituela esango nuke testuaz gozatzeko.

Printze txiki hori zu zara, ni naiz. Haztearekin batera galdu egiten ditugu haurtasunaren irudimena, xalotasuna, benetakotasuna. Horiek erreskatatu behar genituzke. Saint Exupéry, zalantzarik gabe, bere baitan sumatzen zuen haurtasunaren bila ibili zen printze txikia idazterakoan. A zer lezioa eman zigun!

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Maialen Unanue | **Luis Aranalde** | Idoia Torregarai | Nerea Zinkunegi | Joxe Piñas

Txileko ikasleak, Lanbide Eskolan

30 txiletar sei hilabetez Lanbide Eskolan izango dira, energia berriztagarrien inguruko ikasketetan trebatzen. Txileko gobernua lagunduta eta Eusko Jaurlaritzarekin duten hitzarmenaren baitan etorri da txiletar ikasle taldea gure artera. Irailaren 15ean egin zitzaizen harrera. "6 hilabetez egongo dira gure artean, energia mota ezberdinei loturiko eskolak jasotzen. Eskolak teorikoak zein praktikoak izango dira eta 3.mailako profesionaltasun agiriaren eskakizunei erantzuten diete. Eskolak esperientzia aberasgarria izan dadila espero du", berri eman dute Lanbide Eskolatik.



Sei hilabetez egongo dira gure artean, energia mota ezberdinei loturiko eskolak jasotzen.

EPA-n matrikulatzeko aukera zabalik

18 urtetik gorako Usurbilgo Helduen Hezkuntza eskoletan parte hartzeko, izen emateko epea zabaldu dute. Besteak beste, DBH-ko titulua eskuratu, informatika klaseak jaso edota ingeleseko mintza praktika saioetan parte hartu daitezke. Argibide gehiagorako: 943 366 608 telefono zenbakian edo epalazarte.es posta elektronikoaren bidez.



Urdaiagara gau pasa antolatu dute Ziortza gazte taldekoek



Asteburu honetan egingo dute gau pasa Urdaiagan. Dena den, alde zurretik eman behar da izena, ziortzage@gmail.com e-posta helbidera idatziz.

Asteburu honi begira antolaturiko irteera honekin abiatuko dute ikasturte berria Ziortzakoek. Irailaren 26 eta 27rako antolaturiko hitzordurako aurrez eman behar da izena, ziortzage@gmail.com helbidera idatzita. Ekimena, DBH 1, 2, 3 eta 4. mailako ikasleei dago zuzendua. Ostiral arratsaldeko 18:00etan

abiatuko dira Urdaiagara. Biharamunean itzuliko dira. Eraman beharrekoa; afaria, esterila, lotarako zakua eta izen emate orria. Gau pasa honen ostean, Ziortzako taldeek bi egunotan hasiko dituzte ikasturte berriko saioak:

- Urriaren 3an: DBH 1 eta DBH 3 taldeek.
- Urriaren 10ean: DBH 2 eta 4 taldeek.

Gurasoentzako ikastaro lagungarriak

Goera batzuen aurrean galduta ikusten dira gurasoak. "Jarraibide egokiak nahi ditugu baina topatzen ez ditugunean, ingurukoengana jotzen dugu eta aholku horiek sarritan ez dira lagungarri izaten". Antzeko kezka dituzte Hitz Aho guraso elkartean. Eta kezka horiek arintzeko, ikastaro batzuk antolatu dituzte. Seme-alabekin elkar ulertzeko xedez antolatu dira ikastaro hauek. Oraindik bada izena emateko aukera.

- Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1-4ko gurasoentzako ikastaroetan, urriaren 6an amaituko da izena emateko epea. Nerea Mendizabal psikopedagogoak eskainiko ditu ikastarook (30 eurokoa da matrakula), eta izena emateko e-posta bat idatziz helbide honetara: hitzaho@udarregi.com
- LH5-6 eta DBHko guraso taldearekin gai



Nerea Mendizabal aditua.

monografiko bat landuko da lau saioetan, urriaren 29tik aurrera. Gidaria, kasu honetan, Joxe Amiama izango da. Izena emateko, idatziz email bat helbide honetara: hitzaho@udarregi.com

80 urtekoei omenaldia, txartelak salgai

Urriaren 5ean izango da baina ospakizun eguneko bazkarirako txartelak salgai egongo dira ostegun honetara arte, irailak 25, Gure Pakea Elkartek Artzabal duen bulegoan.

Prezioa: 35 euro. Ordainketak bi kontu zenbaki hauetako batean egin behar dira:

Euskadiko Kutxa:

3035 0140 31 1401018416.

Kutxa: 2095 5069 04 1060905378.

Urriak 5, igandea

12:00 Meza, 80 urteko bazkideen eta hildakoen omenez.

14:00 Bazkaria Atxega jatetxean.

Antolatzailea: Gure Pakea.

Afrikar dantza mandingeak

Ikastaroa urritik aurrera, asteazken arratsaldetan, 19:00etatik 21:00etara Usurbilgo Gaztetxean. Irakaslea: Pierre Cece Koly Camara. Prezioa, hilean 28 euro. Izena emateko deitu 627 285 904 telefono zenbakira edo idatziz email bat, usurbilgogaztetxea@gmail.com helbidera. Antolatzaileen oharra; ikastaroko ordutegia behin behinekoa da, behin betiko ordutegia talde kideen artean erabakiko da.

Batukada feministaren ikastaroa

Saioak urritik abendura, egunotan; urriaren 4an eta 18an, azaroaren 15 eta 29an eta abenduaren 13an. Izen ematea zabalik, irailaren 30era arte. Apuntatzeko, deitu 943 377 110 telefono zenbakira edo idatziz parekidetasuna@usurbil.net helbidera. Mezuan, izen abizenak, helbidea eta harremanetarako telefono zenbaki bat zehaztu.



Datorren astelehenean amaituko da izena emateko epea.

“Argian, orain, ardura nagusia

Argia astekariak eta larunbateko Argia Egunaz aritu gara solasean Joxe Mari Irazustarekin

1992an ospatu zen Argia Eguna azken aldiz. 22 urteren ondoren, Argia Eguna berpiztea deliberratu dute astekariko kideek. Joxe Mari Irazustak urteak egin zituen Argian lanean. Orain lametzan egiten du lan, Argia Taldearen baitako beste enpresa batean. Baina berak ere burubelarri hartu du parte Argia Egunaren antolaketan. Astekariaren iraganaz, orainaz eta geroaz hitzatan aritzeko aitzakia paregabea izan dugu.

“Euskalgintzako militantzia batu eta mahaiak ipintzen genituen harpidetzak egiteko, eta urtekaria eta egutegia saltzeko”. Antzekoak ziren duela 20 urteko Argia Egunak, Joxe Mari Irazustak aitortu digenez. Bstelakoa izango da, ordea, larunbat honetakoa.

Herri askotan ospatzen zen orduan, ezta?

Joxe Mari Irazusta. Ia 200 mahai antolatzen ziren Euskal Herri osoan. Horren antolaketak lan handia suposatzen zuen. Garai hartan, militantzia bati tiratzen zitzaion gauza askotarako. Formato horrekin jarraitzeko indarrez urri samar geunden. Eta bestetik, kaleko presentzia Egunkariari utzi nahi izan genion. Orduantxe sortu zen eta harek behar zuen militantzia horren arnasa eta laguntza. Eta horregatik utzi genion Argia Eguna antolatzeari.

Egunkariaren sorrera aipatu duzu, eta Argiarik gabe ezin da sorrera hura ulertu.

Hala da, Egunkariaren sormuina Argian dago. Gehien behar zenean,



Usurbilgo Argiaren Lagunak taldekoak (Joxe Mari Irazusta tarteko) omenduko dituzte jaiaren irekiera ekitaldian.

JOXEMARI IRAZUSTA

“Norabide zuzenean dago. Belaunaldi berri batek heldu dio Argiari, ideia eta asmo berriekin”

gehien jarri zuena Argia bera izan zen. Hango azpiegitura, hango jendea. Apustua Argia barruko jendeak egin zuen eta beharrezko sustengua bilatzeko Argiatik bideratu ziren ahaleginak. Euskal Herrian sortu zen sustengu taldea Argiatik koordinatu zen.

Ordukoak ez ziren garai errazak izan. Oraingoa ere aldrebes samarra da euskal prentsarentzat.

Nik ez dut garai onik ezagutu, behintzat. Trantsizioa delako garaian,

erdal prentsa abertzalea azaltzen hasi zen eta auzitan jarri zen euskal prentsaren funtzioa, baina Argiak euskarazko prentsari heldu zion eta denbora da lekuko: haiek denak desagertu dira (Garaia, Punto y Hora...) eta Argiak hor jarraitzen du, bizirik.

Ondoren, Egunkaria sortu zenean, berriz jarri zen auzitan Argiaren funtzioa. Baina astekariak bere toki propioa zuen euskal prentsaren esparruan. Gainera, Argiaren inguruan komunikazio talde bat osatu zen, eta orain inguruan dituen enpresekin batera, beste gorputz bat hartu du Argiak. Norabide zuzenean dagoela esango nuke. Adinean aurrera goazenak harrotasun puntu batekin ikusten dugu belaunaldi berri batek heldu diola Argiari, ideia eta asmo berriekin heldu ere.

Internetekin asko aldatu dira komunikabideak. Eta aldaketa horren lekuko zuzena izan zara.

Euskalgintzan bestela ere nahikoa lan izan ohi da, galtza bete lan esango nuke, eta Internetarako jauzia 1997an eman genuen. Argiaren baitan baziren zalantzak eta eztabaidak, hori ote zen bidea, ez ote zen gure buruari harrika aritzea, dena librean jarri behar hori... Baina sarean ere gure lekua hartu genuen, eta berehala hartu ere. Jauzi hori eman genuen eta sarean ere Argia taldea erreferentzia bat da. Are gehiago, irrika bat bada teknologia berriekin aritzeko.

Argia Taldeko beste enpresa batean nago orain lanean, lametzan, baina neurri handi batean hortik abiatu ginen.

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

Errazkin S.L.
igeltseritza orokorra

943 24 01 76 eta
649 435 470

errazkinsl@euskalnet.net

Oztaran auzoa 33, URNIETA

TAXI
24 h
USURBILEN

677 37 34 66] Joxe
943 36 21 78] Etxabe

ARTZABAL

Baserría - Jatetxea

943 36 91 39

artzabaljattetxea.com

Jende gazteak darama”

lametzan egiten duzu lan orain, baina Argian funtzio ezberdinak bete dituzu. Zuzendari ere izan zinen, ezta?

Argian lanean hasi nintzenetik, lan ezberdinak egin ditut baina nagusiki kudeatzaile aritu naiz. Jende gaztea bazetorren, lemari heltzeko garaia ere bazutela ikusi nuen eta beste funtzio batzuetan aritu nintzen 2005etik aurrera. Eta 2008tik hona lametzan nago lanean. Argian orain, ardua nagusia jende gazteak darama.

Egunkariaren itxierak Argiari ere eragin zion.

Kolpe latza izan zen guretzat. Argia taldearen historian, unerik beltzena. Egunkariaren itxiera, atxiloketak eta ondoren izan ziren gorabehera guztiak. Zorionez, Pello Zubiriak ez zuen denbora asko egin kartzelan baina nik sekulako beharaldia izan nuen.

Kolokan ikusi zenuen Argia asterakaria?

Ez, ez nuen kolokan ikusi. Horrelakoetan, babesak eta laguntzak



Eñaut Elorrieta kantuan arituko da, 22:00etatik aurrera frontoian.

agertzen dira uste ez duzun tokitik. Nonbait, euskaldunok izaeran dugu hori. Egun haietan babes handia jaso genuen. Zentzu horretan, ez nuen inoiz Argia kolokan ikusi. Gainera, ufada moduko bat izan zen, jende gazteak indar gehiagorekin heldu zion erronkari.

Eta une alairik baduzu gogoan?

Azken urteotan beste jende batek

hartu du Argiaren ardua. Guk gure garaia bete genuen, orain maldan behera edo gure azken txanpan gauden honetan, lasai gaude. Proiektuak aurrera jarraitzeko sustengu eta zutoin sendoak dituelako. Oso jende kapaza dago Argian lanean, indar berri bat sumatzen zaie eta horren lekuko izango da larunbat honetako Argia Eguna.

“Beste pertsona batzuk ere lagundu izan digute”

Usurbilgo Argiaren Lagunak taldeari omenaldia egingo zaio larunbat honetan.

Joxe Mari Irazusta. 90eko hamarkadaren amaieran, egoera ekonomikoa larrian zegoen Argia eta kanpoko laguntzak eta ekarpenak behar zituen. Usurbilgo talde batek erabaki zuen diru baten mailegua hartu eta diru hori Argiari ematea. Horren harira, hainbat ekitaldi antolatu genituen, diru horri aurre egiteko. Burura datozkit orain Aleman anaiak, Joxemanuel eta Luisuari. Erlearekin jarduten dira, ezta lantzen dute eta urte haietan ezti produkzioaren zati handi bat euskalgintzaren esku uzten zuten. Guri ezti piloa ekartzen ziguten, opari, eta hortik ateratzen genuen dirua Argiarentzat izaten zen.

Ezagunena orain, akaso, pai-

lazoan saioa da, abenduan antolatzen duguna. Hortik atera izan diren xoxak Argiarentzat izan dira. Baina ez beti. Urruñako ikastola, Zuberoako Kako baserria... horrelako ekimen berezietarako ere baliatu izan dugu pailazoan saioan batutako dirua.

Ez da kasualitatea beraz, 22 urte eta gero Argia Eguna Usurbilen berpiztea.

Argiaren Lagunen multzo horretan ez dira agertuko akaso, baina Usurbilgo beste pertsona batzuk ere lagundu izan digute. Une larriretan Argiak beti izan ditu errekurtsuak Usurbilen.

Ohiko ekitaldiez gain, beste-lakoak ere topatu ditugu Argia Eguneako kartelean. Ibilbide gi-

datua Usurbilen barrena, tailer ekologiko bat, garaiko eta bertako produktuekin egingo da herri bazkaria...

Gauzak beste modu batean ere antolatu daitezke. Egitarauan badaude horren isla diren hainbat ekitaldi. Kontsumorako produktuen harira, teoria asko egiten dugu baina praktikara eraman behar denean, errazenera jotzen dugu. Antolakuntza ezberdinetan, gure ideien eta helburuen aurka dauden bestelako enpresa eta erakundeetan kontsumitzen dugu, eta xoxak haiei ematen dizkiegu. Argia Egunean bertako produktuekin kontsumitzen dira. Txosnan banatuko direnak ere bertakoak izango dira: bertako garagardoa, bertako sagardoa, bertako freskagarriak...

Argia Eguna Usurbilen Irailak 27 larunbata

09:30 Hernaniko Fanfarrearekin diana.

10:00 Jaiaren irekiera ekitaldia. Usurbilgo Argiaren lagunak taldeari omenaldi xumea.

10:15 Ordubeteko ibilaldi gidatua Usurbildik Jakoba Errekondo, Jon Ander Galarraga eta Josu Tellabiderek.

10:15 Jolasen txokoa irekiko da.

11:30 'Nendo Dango' tailer ekologista, euskara eta lurra biziberritzeko.

12:00 Argiazaleon topaketa. ARGIA proiektuaren nondik norakoak laburrean azaltzea izango da helburua.

14:00 Bazkari ekologiko eta umoretsua. Asisko Urmeneta eta Kike Amonarrezekin. Leku mugatuak daude eta erreserbatzeko ARGIAra deitu: 943 371545 edo bestela Bordaxo tabernan eman izena.

16:30 Jolas zirikatzaileak. Nortasun Agiri Espainiar eta Frantziarraren jaurtiketa.

Bola-joko aldarrikatzailea.

18:00 Bertso saioa Argiaren alde. Amets Arzallus, Miren Amuriza, Julio Soto, Uxue Alberdi, Sustrai Colina eta Rosi Lazkano. Sarrera 5 euro bertan salgai.

18:30 Andrabanda kale eztanda.

22:00 Kontzertuak: Behi Bi Blues, Eñaut Elorrieta, Perlak eta Esther Sound Sister.

Argiaren aldeko kantaldirako sarrera zozketa

Argia Eguna larunbatean ospatuko da Usurbilen. Baina bezperan, irailaren 26an ostirala, Argiaren aldeko kantaldia egingo da Lasarte-Oriako Kultur Etxean, 22:00etan hasita. Mikel Urdangarin, Anari, Pier Paul Berzaitz, Petti, Estixu Pinatxo, Al-boka Taldea, Bide Ertzean eta Jon Basaguren. Sarrera 15 euro.

NOAUA!ko bazkideentzat

Bina sarrera bikoitz ditugu NOAUA!ko bazkideen artean zozketatzeko. Bidali e-posta erredakzioa@noaua.com helbidera eta zorte on! Irailaren 26an, eguerdiko 13:00etan emango ditugu sarituen izenak noaua.com atarian.



Pello Zubiria

Argia Eguna esan duzu?

Aginagan eta Usurbilen ezagutzen nauten askok ez dakite Argia astekarian ari naizenik lanean. Gaztetan entzuten nuen “hi ‘Egin’en habil, ezta?”, edo ‘Punto y Horan’. Gaur berdin ‘Berria’n edo ‘Gara’n. Ez dut gaizki hartzen, euskarazko prentsaren egoeraren seinalea da: 2014an oraindik askorentzako “benetako” prentsa bat dago, alegia Diario Vasco, eta hortik kanpoko guztiak bazterrean geratutako ardi galduak.

Ezezagutza handi hori urratu nahian sortu genuen Argia Eguna 1982an. Aurretik hainbat ahalegin eginak ziren Zeruko Argiako kideak: “Prentsa Euskaraz” kanpaina, “1.000 bazkari Argiaren alde” (geroztik hain famatuak egin diren sukaldari onenekin) Anoetan, eta abar. 1982an kide gazteok Argia Eguna proposatu genuenean, beterranoenak konbentzitu behar izan genituen: “Hainbeste lan zertarako?”. Berdintsu sentitu nintzen ni, gaurko taldeko zaharrena, esan zidatenean



“Irakurleak gure bazkideztat eduki nahi eta behar ditugu Argian”.

Usurbilen antolatu nahi zutela Argia Eguna. Baina gazteek dute askotan arrazoi eta hemen daukagu 2014ko Argia Eguna.

Argiak beti aurkitu du jende eta talde askoren laguntza bere bidean, AEK, EHK, herrietako euskara eta kultur elkarteak, pertsonalki konprometitu izan diren euskaltzaleak... Usurbilen aspalditik Argiaren Lagunak ari dira laguntza handia ematen. Argian

ari garenok eskertzen dugu eta ordainetan zera eskaintzen dugu: langile gehienok bazkide garen gure kooperatibak denon ahaleginarekin landutako prentsa, paperean bezala Interneten.

Usurbilekin lotura handia eduki du betidanik Argiak. 1979tik hasita krisi urterik gogorrenetan astekaria aurrera ateratzen hasita gaur arte gurekin dabil Joxe Mari

Ostolaza, Xalbardin, Usurbilen oso ezaguna lehenagotik esku-baloi taldearen entrenatzaile egin zuen lanagatik. Luken Goia zubietarra funtsezkoa izan da aldizkaria babesteko antolatutako egitura osoan. Erretiroa hartu berria duten biok aipatzen ditut hemen, Argiarekin lotura duten Usurbilgo gizon eta emakumeen zerrenda luzea ez aipatzearen.

Gainera, Usurbilen irakurle-bazkide asko eduki ditu betidanik Argiak. Lanean asmatu dugunean animatu gaituzten eta huts egin dugunean pazientziaz soportatu gaituzten bazkideak. Euskara bezalako hizkuntza txiki batek bizirauteko aukerarik ez dauka ez baldin bada herritarren konpromisoarekin; berdin euskarazko komunikabide batek: irakurleak gure bazkideztat eduki nahi eta behar ditugu Argian.

Argia kooperatibako langileok nahiko genuke Usurbilgo Argia Eguna izatea batera edo bestera elkarlanean ari garen bazkide (irakurle, langile, kolaboratzaile eta laguntzaile) guztion festa. Mila esker denoi!

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

JE

JON ELORZA

IGELTSERITZA
OROKORRA

Obra eta erreformak

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Eraikin berriarekin txundituak

Geure garaian halakorik izan bagenu, hitzok sarritan entzun ziren, aurreko larunbatean, Udarregi Ikastolako eraikin berriaren inaugurazio ekitaldian. Instalakuntzekin txundituta dira haurrak, pozik Udarregi Ikastolako kideak, eta jakinminez ziren, irailaren 20an ospakizun ekitaldira gerturaturiko hainbat guraso eta herritar. Musika, dantzarien agurra, zinta moztea, instalakuntzetara bisitaldi gidatua, eta luntx eder bat, borobil askoa izan zen, hilabete hasieratik irekia zegoen eraikinaren inguruan ikastolak antolatu zuen hitzordu berezia.

Ikastolako eraikin berriaren inaugurazioa izanik, ezin zitekeen beste modu batean izan. Ikasleen parte hartzea nabaria izan zen ekitaldian zehar; Dantza Taldeko kideen agurrarekin, edota gaztetxoek Zumarte abesbatzak abesturiko kantuekin. Belaunaldi ezberdinetako hiru usurbildarrek izan zuten hitzorduko une berezienaz, zinta mozketaz arduratzeko ohorea.

Elkarlanaren emaitza

“Iritsi da eguna” zioen pozarren Mariaje Imaz Udarregi Ikastolako zuzendariak, Udarregi Ikastolako eraikin berria inauguratu aurreko minutuetan. Pozarren baita, Artekarriz Kontseiluaren izenean hitz egin zuen ikastolako lehendakaria ere. Azpiegitura eta proiektu pedagogiko berria martxan jarri baititu Udarregik eta hori, jende askoren arteko elkarlanaren ondorioa izan da. Eskerrak helarazi nahi izan zizkien laguntza eman duten guztiei; udal, ikastolako langile, guraso edota herritarrei. Eta auzolanerako gonbita luzatu zuten. Bi aste barru jasoko baitu Usurbilek Orion, 2015eko Kilometroak jaialdia antolatzeke lekukoa. “Urte



Inaugurazio eguneko bideoa eta argazkiak, noaua.com web orrian ikusgai.

AUZOLANERAKO DEIA

“Larunbat honetarako, zazpi laguneko lan taldea osatu nahi dute goizeko 9:00etan, Ikastolako biltegia husteko”

berezia izango dugu”, iragarri zuten. Eta auzolanerako gonbita baita, eraikin berriko lanak guztiz amaitzen laguntzeko. Larunbat honetarako, irailak 27, zazpi laguneko lan taldea osatu nahi dute goizeko 9:00etan, Udarregi Ikastolako biltegia husteko. Gabonetako

oporraldietan, HH4 eta HH5eko geletan egurrezko egiturak jarri nahi dituzte. Deialdiotan lagundu nahi duenak, 943 36 12 16 zenbakira deitu edo usurbil@ikastola.net helbidera idatzi dezala.

Inbertsiorik onena

Zorion hitzak Udalaren ize-nean, Mertxe Aizpuru alkaterearen eskutik. Udalak eginiko azken aldiko inbertsio handiena izan da ikastolako eraikin berrira bideratu duen laguntza. Euskara eta hezkuntzari loturiko egitasmoa izanik, Udalak egin dezakeen inbertsiorik

onena izan da, Aizpuruaren esanetan. Ahaleginak merezi izan duela zioen, herritik sorturiko proiektua izan eta herriarekin batera haziko den proiektua izango dela gogoraztearekin batera.

HH3koen gela

“Kuxkuxeroz” bete zen Udarregiko eraikin berria, ikastola batentzat ezohikoa izan zen larunbat eguerdian. Udarregi Ikastolako eraikin berriko instalakuntzak barrutik, gertutik ezagutzeko jakinmina bazen. Eta entzun zenagatik, haur, guraso edota hezitzaileak, ikusitakoarekin gustura ziren. Inaugurazio ekitaldiko zinta mozketan ostean ireki zituzten Udarregi Ikastolako eraikin berriko ateak eta barrura sartu zen, hitzordura gerturatu den jende guztia.

Instalakuntza berriak ezagutzeko aukera izan zuten, baita jangela handi eta berrian, luntx ederra dastatzeko ere. Ikusmin handiena sortu zuen gunetako bat, Haur Hezkuntzako 3 urtekoen gelako azpiegitura izan zen.

Kilometroak-en lekuko hartzea, Orion

Urriaren 5ean ospatuko da Kilometroak jaia Orion. Egun horretan bertan hartuko du Udarregi Ikastolak, 2015eko ikastolen jaia antolatzeke lekukoa. Orioko Kilometroak ekimenera bueltatuz, usurbildarren laguntza behar dute, urriaren 5ean, baita bezperatan ere, lan hauetarako:

■ Ostiral gaueko (urriak 3) eta larunbat gaueko (urriak 4) guneen gaueko zaintza. 30 kide behar dira, 15 gau bakoitzeko.

■ Kilometroak egunean Belartzako eta Urbileko trafikoa bideratzen laguntzeko eskaera. Bi txanda, goizetik 14:00ak arte eta 14:00tik amaitu arte.



Mariaje Imaz, Udarregi ikastolako zuzendaria.

■ Izena-emateko: Bidali izen abizenak, kontaktua (posta elektronikoa eta mugikorreko zenbakia ahal baldin) eta prest egiteko dauden

txanda usurbilkilometroak@udarregi.com helbidera. Edo ikastolako idazkaritzara azaldu edota deitu 688 639 910 mugikorrera.

Auzo giroa bizirik Santuenean

Tradizioa hautsi da. Oraingoan, eguraldiak as-teburuan ospatu diren Santuenerako jaiak errespetatu ditu. Halere, giro txarrenerako ere prest ziren. Estalpe berria baitute; frontoia. Pilotalekua eta aurreko plazatxoak izan dira, herri bazkari, kontzertu, haur jolas eta zenbait txapelketen lekuko zuzenak. Auzo giroko festak dira Santuenerakoak, urtean behin, auzotarren topagune izan eta auzo giroa berpizten dutenak. Amaitu dira aurtengoak. Orain, Aginagako San Praixkuak begi bistan. Urriaren 2tik 11ra. Aurtengo azken festak etorri zain, hemen joan berri zaizkigun Santuenerako jaien hainbat irudi. Nooia.com atarian dituzue argazki eta bideo gehiago.



Giro ederrarekin igaro dituzte jai egunak Santuenean.



Jan-edanik ez zen falta izan.



Txikiak zein helduek, ederki asko pasatzeko aitzakia ugari izan dituzte egunotan Santueneko jaietan.

Festak amaitu dira, jai giroa ez Ostiral honetan Tomas eta Arantxa pailazoak

Ostiral honetan, irailak 26, Tomax eta Arantxa pailazoak emanaldia eskainiko dute Santueneko frontoian. Arratsaldeko 17:00etan hasiko da ikuskizuna, eta ondoren txokolatea banatuko da.

Pailazoaren web orrian irakurri

